

KONTZERTU SOLIDARIOA

BILBOKO KORAL ELKARTEA

IRAILAREN 14AN, OSTEGUNA 20:00ETAN SANTA MARIA KATEDRALA VITORIA-GASTEIZ

WE ARE LIKE YOU OSASUN MENTALEKO PROIEKTUAREN ALDE LIBERIAN, AFRICA

WWW.WEARELIKEYOU.ORG



BILBOKO KORAL ELKARTEA

EGITARAUA

| | |
|---|--|
| CANTIQUE DE JEAN RACINE AVE MARIS STELLA GLORIA | Gabriel Fauré (1845-1924) Edvard Grieg (1843-1907) Vytautas Mishkinis (n. 1954) |
| O Mensch, Bewein Dein Sünde Groß BWV622 | J. S. Bach (1685-1750) |
| KYRIE (a 8 v.m.) OREMUS | Josef G. Rheinberger (1839-1901) Urmas Sisask (n. 1960) |
| Concierto en re menor BWV 596 Primer Mvto.: Allegro – Grave – Fuga | J. S. Bach (1685-1750) |
| AITA GUREA IZAR EDERRA NEREA IZANGO ZEN | Aita Madina (1907-1972) Arm. Francisco Escudero (1912-2002) Mikel Laboa (1934-2008) Arm. Javier Busto (n. 1949) |
| AURTUOA SEASKAN | Gabriel Olaizola (1891-1973) Arm. José Olaizola (1883-1969) |
| UN HOMENAJE A IPARRAGUIRRE | Javier Bello-Portu (1920-2004) |

Bilboko Korral Elkarteak 1886an sortu zen musika lantzeko, oro har, eta korala lantzeko bereziki. 130 urtetik gorako bilakaera horretan, arrakasta eta sari ugari eta entzute handia lortu ditu.

Hasiera-hasieratik elkarteko koruak zuzendu dituzten maisuetako batzuk dira honako hauek: Zabala, Valle, Guridi, Inchausti, Urrengoechea, Olaizola, Arana, Frühbeck de Burgos, Cordero, Ruiz Laorden, Ezkurra, Sierra, Moreno, Cabero eta Julio Gergely. 2016ko apirilean, Enrique Azurza bihurtu zen zuzendari.

Bilboko Korral Elkarteak ia Espainiako orkestra guztiekin batera egin ditu emanaldiak, bai eta Moskuko Orkestra Sinfonikoarekin, Portugaleko Irrati Hedapen Orkestrarekin, Bordele-Akitania Orkestrarekin, Royal Philharmonic Orkestrarekin, Budapesteko Orkestra Sinfonikoarekin, Orchestre National du Capitole de Toulouse orkestrarekin, Berlingo Orkestra Sinfonikoarekin, Akisgraneko Orkestra Sinfonikoarekin, Parisko Ganbera Orkestrarekin, Wiener Akademie Orkestrarekin, Tokyo Metropolitan Symphonic Orkestrarekin eta BBCren Orkestra Sinfonikoarekin ere.

Arte Ederretako urrezko domina, San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiaren ohorezko domina eta Bilbo Hiriaurren urrezko domina jaso ditu.

Azken aldiko emanaldien artean, nabarmenezkoa da San Petersburgoko Mariinsky Antzokiko Orkestrarekin egindakoa, V. Gergieven zuzendaritzapean. 2017ko ekainean, Calixto Bieito lanaren ekoizpen berrian parte hartu du, Brittenen "War Requiem" abestu baitzuen Arriagan Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (BOS) eta E. Nielsen zuzendaritzapean.

Datorren irailean bertan, hiru kontzertuz osatutako zikloa gauzatuko du Gernikan, Bilbon eta Madrilen Bizkaiko udalerrira bonbardatu zuteneko 80. urteurrena dela eta, eta Christos Hatzis musikagilearen Everlasting Light lanaren estreinaldia egingo du European.

ENRIQUE AZURZA

ZUZENDARIA

Bilboko Korral Elkartearen zuzendari artistiko 2016az geroztik, eta koru-kantuko irakasle Musikene – Euskal Herriko goi-mailako musika-ikastegian, Enrique Azurza bere belaunaldiko koru-zuzendari nabarmenenetakoa eta dinamikoenetakoa da.

1991n, Zuzenari Onenaren Saria jaso zuen Varnako (Bulgaria) Nazioarteko Lehiaketan. Gainera, IFCMk bi aldiz gonbidatu du Koru Musikaren Munduko Sinposiora, Sydneyra (1996) eta Puerto Madrynera (Argentina) (2011) zehazki.

Euskal Herriko Unibertsitateko Korua, Kantabriako Koru Lirikoa – Santanderreko Jaialdi Jauregiko Korua eta Koru Kantuko Aragoiko Institutuaren Korua zuzendu ditu. RTVEko koruan ere jardun du zuzendari gonbidatu gisa, bai eta Stockholmeko St. Jacob koruan ere. Gaur egun, Tolosako Hodeiertz korua ere zuzentzen du, bai eta KEA Ahots Talde profesionala ere, musika garaikidean espezializatutakoa.

ALBERTO SÁEZ

ORGANO-JOTZAILE

Kontzertista segurua da, pianista bakarlari gisa edo abeslarien laguntzaile gisa, eta klabezin-jotzaile edo organo-jotzaile gisa, eta Espainiako, Frantziako, Errumaniako eta Portugaleko tenplu eta agertoki garrantzitsuenetan gauzatutako kontzertu-zikloetan parte hartu du. Errioxako Orkestra Sinfonikoaren laguntzaile da, eta Duo Aulos duoa osatzen du Casandra Álvarez Muñoz oboe-jotzailearekin. Valladolideko Organo Jotzaile Liturgikoen Ikastaro Nazionaleko irakasle-klaustroko kidea da.

Zuzendari gisa, talde ugari zuzendu ditu, eta Briviescako Udalaren Musika Bandako zuzendari-plazaren titular da. Gaur egun, irakaslea da Kantabriako Autonomia Erkidegoan, eta Zuzendari Titular Arabako Koru Sinfonikoan.

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

DATO | ECONÓMICO



Ahizpa
Ospitalariak
AITAMEN



Bilboko Korral Elkarteak
Sociedad Coral de Bilbao